

Pasaiaiko badiaren berrikuntza plana martxan da

# Europatik

## dator notizia

Pasaiaiko badia berritzeko planari laguntza emango dio Europako Batasunak. Europak Urban Planaren aurrekontuen erdia jarriko du: 10,3 milioi euro. Planak Altzan, Herreran, Larratxon eta Bidebietan eragina izango du.

### Aitziber Iartza

**U**rban ekimena Europatik dator. Arazo sozialak, ekonomikoak eta hirigintzakoak dituzten zonaldeetan egini-ko plangintzei bultzada emateko bidea da

Urban. Hala, Europako Batasunak birgaitze planen aurrekontuen erdia jarri ohi du.

Gurean behar gehien duen inguruetakoko bat Pasaiaiko badia denez, hiru al-

ditan laguntza hauek lortzeko saioa egin da. Azkenean iazko azaroan erabaki zuen Europako Batasuneko Batzordeak Pasaiaiko badiari laguntza ematea. Honen eragi-

## Proiektu zehatzak auzoz auzo

### Bidebieta auzoa

**Parkea berritzeko lanak:** Urban Planean Xabierko San Frantzisko elizaren ondoko plazaren berritze proiektua ageri da. Plaza honek 5.000 m<sup>2</sup> ditu eta Bidebietako erdigunean dago. Proiektuak dionez, egun plaza erabat utzita dago eta bazterketa gune da. Horregatik, parkeari itxura egokia emateko landare berriak, haur jolastokia, argiztapen publikoa eta bestelakoak jarri nahi dira.

**Kultura Sailaren egoitza:** Donostiako

Udalak eskaintzen dituen zerbitzu batzuk inguru honetako herritarrengana hurbildu nahi dira. Hala, Kontadoreen egingo dituzten etxebizitzetan Kultura Sailaren egoitza bat jarriko da. Bertan, kultura sustatzeko ekimenak egingo dira: arte ikastaroak, ikusentzutekoak, herritarren parte hartzea bultzatzeko ikuskizunak... Halaber, teknologia berriei buruzko liburategia ere martxan jarriko da. Proiektu honetarako 1.500 m<sup>2</sup>ko egoitza egokitu-ko da.

**Ongizate Sailaren bulegoa:** Kontadoreseko etxeetan Ongizate Sailaren bulego bat ere ezarri nahi da. Arlo honetan behar handiak daudela eta, Bidebietako herritarrek zerbitzu hauetara jotzeko erraztasunak behar dituztela dio proiektuak.

**Teknologia berrien enpresen haztegia:** Kontadoreseko etxebizitzetako behaldeen 500m<sup>2</sup>ko gunea egokitu nahi da teknologia berrien enpresen haztegia ezartzeko. Bertan trebakuntza eskainiko zaio jendeari, eta enpresa berriak jartze-

## Europak arazoak dituzten zonaldeei ematen dizkie laguntzak

na nabarituko duten herriak eta hiriak Donostia, Pasaia, Errenteria, Lezo eta Oiarzun dira. Donostiaren kasuan, Altza, Herrera, Larratxo eta Bidebieta auzoak daude Urban zonaldean.

Urban ekimena garatzen hasteko azken urratsa martxoan eman zen. Orduan, aipatu herrietako udalek Badia Berri elkar-tea sortu zuten. Elkar-tea hau arduratuko da Urban Planeko diruen kudeaketaz, eta lehen bi urteetan Odon Elorza Donostiako alkatea izango da presidentea.

Urban Planeko proiektuek 20,6 milioi euroko (3.400 milioi pezeta) aurrekontua dute. Europak 10,3 milioi euro jarriko ditu eta gainerakoa bertako erakundeek jarriko dute. Berriki Eusko Jaurlaritzak 2,7 milioi euro bideratuko dituela jakinarazi du.



Urban Planak hainbat tokitan izango du eragina, tartean Trintxerpen.

Udalek, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiari ere dirulaguntzak lehenbailehen bideratzeko eskatu diote. Lehen urratsak eman dira, baina asko dago egiteke. Plan guztiek 2008. urterako bukatuta egon beharko dute, hori baita gehienezko epea.

### Baztertutako gunea

Esan bezala, Urban laguntzak behar gehien dituzten tokiei eman ohi zaizkie.

Datuak erakusten dute zergatik eman dioten laguntza hori Pasaia badiari.

Langabezia datuak begiratzea nahikoa da horretaz ohartzeko. Donostia osoan, 1996an, langabezia tasa %8,8koa zen birtartean, Herrera eta Altzan %11,8koa zen, Bidebietan %9,8koa eta Trintxerpen, Pasai San Pedron eta Pasai Antxon %9,6koa.


Herritarren ikasketa mailan ere ageri dira aldeak. Esaterako, analfabeto kopuruak bikoiztu egiten du Donostiako gainerrako auzoen batez bestekoa.

Biztanleriari dagokionez, dentsitatea izugarri handia da aipatutako zonaldean. Donostian 2.877 biztanle daude kilometro karratuko; Bidebietan, berriz, 35.8210.

Halaber, etxebizitzaren kalitatea eskasagoa da, eta tamaina askoz ere txikiagoa.

### Hobekuntzen hazia

Egoera ikusita, Pasaia badi berri-



ko gunea ere izango da. Era berean, enpresen arteko harremanak sustatzeko proiektua martxan jarri nahi da. Horretarako, 1.260.000 euro bideratuko dira.

### Herrera auzoa

**Errepide berria:** Herreraren birgaitze planaren baitako proiektuetako bat errepide berria eraikitzea da. Helburua auzoko sarbidea hobetzea da. Errepidea trenbidearen pare joango da, eta zenbait in-

dustrialde bota beharko dira eraiki ahal izateko.

### La Herrera zonaldea

**Ingurua edertzeko programa:** Herrera, Trintxerpe eta Pasaia portuaren arteko gune honetako zorua konpontzeko, argiztapena egokitzeko, seinaleak jartzeko eta abarretako plangintza martxan jarriko da. Halaber, eraikinen kanpoaldea berritzeko laguntzak emango dira.

Guztira 20.000 m<sup>2</sup>tan izango dute eragina berrikuntzek.

**Enpresen lekualdatzea:** Zonalde honetan dauden enpresak beste gune batzuetara eramateko programa bat abian jarriko da. Zonaldeko enpresen %60 beste industrialdeetara eramatea aurrekusi da.

**Berdegunak:** Berdeguneak ezartzeko plana ere badago. La Herreran, haren inguruan eta Lau Haizeta parkeko Larratxo aldean egingo dira.

Luzer Zahalean



tzeko hainbat neurri hartu behar zirela ikusi zuten agintariak. Urban Planak Pasaia badiaren egin beharreko proiektu batzuk, 16 inguru, biltzen ditu. Hala ere, honetan parte hartu duten eragile guztiek argi dute honek bakarrik ez dituela Pasaia badiako arazoak konponduko. Dena dela, hazi garrantzitsua eta funtsezkoa dela diote.

**Urban Planak 20,6 milioi euroko aurrekontua du**

Arantza Iriondo Donostiako Udaleko Garapen Saileko teknikariak honela azaldu digu: "Ekimena oso garrantzitsua da. Batetik, bost udal elkartu eta ados jarri gara ingurutako arazoei aurre egiteko. Bestetik, aurrera begirako pausoak ahalbideratu ditu egoerari buelta emateko". Urban Planak onura nabarmenak ekarriko dituela dio Iriondok, eta zonaldeko bizitza kalitatea hobetu egingo dela ez du zalantzarik. "Hala ere, hau oinarria baino ez da, hazi. Beste laguntza batzuk lortzeko bidea da. Askoz ere gauza gehiago dago egiteko", adierazi digu.

Proiektua egiteko Pasaia badiako bizilagunekin hitz egin dutela adierazi digu Iriondok. Ildo honetatik, hainbat elkartek jada atxekimendua eman diote planari. Dena den, onartu du zabaldutako informazioa oraindik ere ez dela nahikoa. Horregatik, proiektuaren barruan publizitate kanpaina bat ere aurreikusi dute.

**Auzotarrak pozik baina kezkatuta**

Oro har, zonaldeko biztanleak pozik daude plan hau dela eta, baina kezkak ere ez dira falta. Trintxerpe XXI Hiritar Plataformako Josetxo Dominguezekin aritu gara solasean gaia nola ikusten duten jakite-

ko. "Proiektua garrantzitsua da, eta guk hasieratik bultzatu dugu. Esaterako, La Herrera zonaldea egokitzea funtsezkoa da. Gure herri barruan dago eta erabat utzita dago. Planarekin gauzak hobetuko direla dirudi", adierazi digu. Baina, argi ibiltzeko deia ere egin du. "Guztia ez dago eginda. Erakundeek ados jarri behar dute eta proiektuak epe jakin batean gauzatu behar dira. Pasaia oso konplexua da, eta zaila da ados jartzea. Horregatik, argi ibiltzeko deia egiten dugu. Pentsa zer erreakzio sozial egongo litzateke epeak ez betetzeagatik dirulaguntzak galduko balira. Asko dago jokoan", esan digu.

**Berdintasuna bultzatzeko programak**



Urban planarekin Pasaia badiaren itxura aldatzea lortu nahi da baina herritarren ongizatea lortzea da benetako asmoa. Ongizate hori lortzeko ezinbestekoak dira bertako herritarrei zuzendutako planak. Hortaz, aukera berdintasuna sustatzeko programa jarriko da martxan. Horretarako, Larrañon egoitza bat egingo da eta batez ere, denbora luzez langabezian daudeneri, emakumeei eta pertsona helduei prestakuntza eskainiko zaie. Pertsona hauek teknologia berriekin harremanetan jartzeko saioa egingo da bereziki.

Baztertutako taldeak laguntzeko programa bat ere martxan jarriko da. Batez ere, pertsona horiek lan mundura bideratzeko neurriak hartu nahi dira.

Bi helburu hauek bultzatzeko 1.894.000 euro (315 milioi pezetan) bideratuko dira.

Bestetik, 768.000 euro erabiliko dira zenbait enpresa laguntzeko eta baita enpresa berriak bultzatzeko ere. Diru hau, batik bat, malleguak babesteko erabiliko da.

**IRIONDO**



Kontadores-en etxebizitza eta bulegoak egingo dituzte.

### Itsas sektorea

Felix Garziandia Union Naval de Pasaia elkargoko kudeatzailearekin ere aritu gara, sektoreak Urban Plana nola ikusten duen jakiteko. "Urban plana oso ona da badiarentzat. Gauza ezberdinak egiteko

*aukera emango du, baina hasiera besterik ez da. Berez, Urban planak ez du aldaketa handirik ekarriko, baina hala ere, bada filosofia aldaketa bat. Orain arte Pasaia ahaztuta izan dute eta", adierazi digu. Hala, Udalak, Europako Batasuna, Portuko*



Agintaritza eta abar ados jarri izana garrantzitsutzat jo du.

Dena den, arazoak ere badirela dio Garziandiak. "La Herreran eta Trintxerpen aldaketa handiak ekarriko ditu honek. Inguru horretan, ordea, enpresa handiak daude eta ez da argitu nora joango diren. Itsasoarekin lotutako enpresak dira, eta hauentzat aukera bat Donibane izan daiteke. Lehenbailehen erabakiak hartu behar dira. Denbora aurrera doa eta ez dago erantzunik".

## Turismoa bultzatzeko ekimenak

Pasaia badiaren sektore turistikoa bultzatzea da Urban Planak jasotako egitasmoetako bat. Horretarako, Pasaia badiaren jolas eta kultur parkea egingo da. Itsas museo gisakoa izango da parkea, eta Pasaia itsasoarekiko duen lotura azalduko du. Proiektuaren bidez, Pasaia badiaren Miarrizte-Donostia bide turistikoa sartzeari lortu nahi da. Hori bestelako zerbitzu turistikoa sortzeko pizga-

ri izango dela uste da. Egitasmo honetan 1.843.000 euro erabiliko dira.

Turismoa erakartzeko, berezibiziko garrantzia izango du ingurunearen berritze fisikoak. Beraz, orain arte aipatutako proiektuez gain, N-1 errepidea hiribide bihurtzeko egitasmoak leku berezia merezi du. Egitasmo honen bidez, errepidearen izaera aldatu nahi da, gaur egun auzuneen arteko mugari baita.




Euskal Herrian lan eta bizi bertan erabaki !

Maiatzaren Lehenean,  
manifestazioa 12.00etan Bulebarrean

tzeko hainbat neurri hartu behar zirela ikusi zuten agintariek. Urban Planak Pasaia badiaren egin beharreko proiektu batzuk, 16 inguru, biltzen ditu. Hala ere, honetan parte hartu duten eragile guztiek argi dute honek bakarrik ez dituela Pasaia badiako arazoak konponduko. Dena dela, hazi garrantzitsua eta funtsezkoa dela diote.

LUZE ZABALEAN



## Urban Planak 20,6 milioi euroko aurrekontua du

Arantza Iriondo Donostiako Udaleko Garapen Saileko teknikariak honela azaldu digu: "Ekimena oso garrantzitsua da. Batetik, bost udal elkartu eta ados jarri gara ingurutako arazoei aurre egiteko. Bestetik, aurrera begirako pausoak ahalbidetuko ditu egoerari buelta emateko". Urban Planak onura nabarmenak ekarriko dituela dio Iriondok, eta zonaldeko bizitza kalitatea hobetu egingo dela ez du zalantzarik. "Hala ere, hau oinarria baino ez da, hazia. Beste laguntza batzuk lortzeko bidea da. Askoz ere gauza gehiago dago egiteko", adierazi digu.

Proiektua egiteko Pasaia badiako bizilagunekin hitz egin dutela adierazi digu Iriondok. Ildo honetatik, hainbat elkartetan jada atxekimendua eman diote planari. Dena den, onartu du zabalduetako informazioa oraindik ere ez dela nahikoa. Horregatik, proiektuaren barruan publizitate kanpaina bat ere aurreikusi dute.

### Auzotarrak pozik baina kezkatuta

Oro har, zonaldeko biztanleak pozik daude plan hau dela eta, baina kezka ere ez dira falta. Trintxerpe XXI Hiritar Plataformako Josetxo Dominguezekin aritu gara solasean gaia nola ikusten duten jakite-

ko. "Proiektua garrantzitsua da, eta guk hasieratik bultzatu dugu. Esaterako, La Herrera zonaldea egokitzea funtsezkoa da. Gure herri barruan dago eta erabat utzita dago. Planarekin gauzak hobetuko direla dirudi", adierazi digu. Baina, argi ibiltzeko deia ere egin du. "Guztia ez dago eginda. Erakundeek ados jarri behar dute eta proiektuak epe jakin batean gauzatu behar dira. Pasaia oso konplexua da, eta zaila da ados jartzea. Horregatik, argi ibiltzeko deia egiten dugu. Pentsa zer erreakzio sozial egongo litzateke epeak ez betetzeagatik dirulaguntzak galduko balira. Asko dago jokoan", esan digu.

## Berdintasuna bultzatzeko programak


Urban planarekin Pasaia badiaren itxura aldatzea lortu nahi da, baina herritarren ongizatea lortzea da benetako asmoa. Ongizate hori lortzeko ezinbestekoak dira bertako herritarrei zuzendutako planak. Hortaz, aukera berdintasuna sustatzeko programa jarriko da martxan. Horretarako, Euzko Legebiltzarrak egoitza bat egingo da, eta batez ere, denbora luzez lanagabean daudeneri, emakumeei eta pertsona helduei prestakuntza eskainiko zaie. Pertsona hauek teknologia berriekin harremanetan jartzeko saioa egingo da bereziki.

Bazterretako taldeak laguntzeko programa bat ere martxan jarriko da. Batez ere, pertsona horiek lan mundura bideratzeko neurriak hartu nahi dira.

Bi helburu hauek bultzatzeko 1.894.000 euro (3,15 milioi pezetan) bideratuko dira.

Bestetik, 768.000 euro erabiliko dira zenbait enpresa laguntzeko eta baita enpresa berriak bultzatzeko ere. Diru hau, batik bat, maille guk babesteko erabiliko da.

Kontadores-en etxebizitza eta bulegoak egingo dituzte.






## Itsas sektorea

Felix Garziandia Union Naval de Pasaia elkargoko kudeatzailearekin ere aritu gara, sektoreak Urban Plana nola ikusten duen jakiteko. *"Urban plana oso ona da badiarentzat. Gauza ezberdinak egiteko*

*aukera emango du, baina hasiera besterik ez da. Berez, Urban planak ez du aldaketa handirik ekarriko, baina hala ere, bada filosofia aldaketa bat. Orain arte Pasaia ahaztuta izan dute eta"*, adierazi digu. Hala, Udalak, Europako Batasuna, Portuko



Agintaritzatza eta abar ados jarri izana garrantzitsutzat jo du.

Dena den, arazoak ere badirela dio Garziandiak. *"La Herreran eta Trintxerpen aldaketa handiak ekarriko ditu honek. Inguru horretan, ordea, enpresa handiak daude eta ez da argitu nora joango diren. Itsasoarekin lotutako enpresak dira, eta hauentzat aukera bat Donibane izan daiteke. Lehenbailehen erabakiak hartu behar dira. Denbora aurrera doa eta ez dago erantzunik"*.

## Turismoa bultzatzeko ekimenak

Pasaia badiaren sektore turistikoa bultzatzea da Urban Planak jasotako egitasmoetako bat. Horretarako, Pasaia badiaren jolas eta kultur parkea egingo da. Itsas museo gisakoa izango da parkea, eta Pasaia itsasoarekiko duen lotura azalduko du. Proiektuaren bidez, Pasaia badiaren Miarritze-Donostia bide turistikoa sartzeari lortu nahi da. Hori bestelako zerbitzu turistikoa sortzeko pizga-

rri izango dela uste da. Egitasmo honetan 1.843.000 euro erabiliko dira. Turismoa erakartzeko, berezibiziko garrantzia izango du ingurunearen berritze fisikoak. Beraz, orain arte aipatutako proiektuez gain, N-1 errepidea hiribide bihurtzeko egitasmoak leku berezia merezi du. Egitasmo honen bidez, errepidearen izaera aldatu nahi da, gaur egun auzuneen arteko mugarri baita.

# ILAB

langile abertzaleen batzordeak

## Euskal Herrian lan eta bizi bertan erabaki !

## Maiatzaren Lehenean, manifestazioa 12.00etan Bulebarrean



«Unibertsitateak ez du loturarik gizartearekin»

Iban Zaldia idazle eta EHUko irakaslea batetik bestera dabil azken boladan. Hitzordua egin genuen egunean, gureaz gain, beste elkarrizketa bat zuen. Gauean, berriz, literatura tertulia. Donostiarrak duela gutxi argitaratu zuen azken ipuin liburua: "La isla de los antropólogos y otros relatos". Bere bosgarren ipuin liburua da eta gaztelerazko bigarrena.

Ainhoa Irazu

Zure azken liburua bi hilabetetan agortu da. Kritika paregabeak jaso ditu, bai hemen eta baita Euskal Herritik kanpora ere. Nola hartu duzu arrakasta?

Arrakasta hitza gehiegizkoa iruditzen zait. Finean, literaturaren eremua oso mugatua da. Liburua, batez ere, Euskal Herrian saldu da, eta horri esker atera da bigarren edizioa. Kanpoan ere kritika oso onak jaso ditu: Madrilan izan naiz eta ekainean Salamancara joango naiz. Horrek poza ematen dizu, baina ez neurrigabekoa. Gauzak erlatibizatu egin behar dira. Ipuin liburu bat da eta ezohikoa da bigarren edizioa ateratzea, baina hala ere, ez da neurritz kanpokoa.

Zure ipuinetan ironia, irudimena, zorroztasuna nagusi dira. "Errealismo magiko"-tik edan duzula dirudi. Hala al da?

Bai. Gaztetan irakurritako gauzak markatu ohi zaituzte. Nik literatura Cortazar eta Borgesekin aurkitu nuen eta nire ipuinetan bada errealismo horretatik zerbaiz. Hala eta guztiz ere, nik zabalago joko nu-

ke eta, oro har, literatura fantastikoaz hitz egingo nuke. Literatura fantastikoak eragin handia izan du nigan. Gainera, badut beste iturri bat, errealismoarekin lotutakoa.

Traidorearen figura zintzoenarena baino gogokoago duzula esan izan duzu. Joku gehiago ematen al dizu?

Bai. Traidorearen figura erabili izan deanean, bere alde iluna nabarmentzeko izan da. Nekatuta nago ohiko heroiei buruzko lanekin. Nire ustez, epika horrek ez du zeresanahi handirik, batez ere, gaur egungo mundua eta gure errealitatea ikusita. Nire ustez, ebangelioko heroia ez da Jesus, Judas baizik, berari esker lortu baitzuen Jesusen sinbolo bihurtzea. Zuku asko atera dakioket traidorearen figurari.

Ausarta zara, izan ere, euskal munduari barre egiten diozu. Gure buruaz gehiago barre egin behar al genuke?

Ez dago beste erremediorik. Trama epiko eta tragikoez nazkatuta nago eta hori da gure literatura edo gure egunerokotasuna irakurtzerakoan gehien erabili dena.

**Historia  
oso arma  
boteretsua  
da gizartearen  
nahiak  
manipulatzeko**

Barre egitea askapenerako bide bat izan daiteke, subertsio modu bat. Cortazarrek zioen ez zuela literatura ulertzen umorerik gabe. Nire ustez, oso osagarri garrantzitsua da. Bestalde, nire idatzietan bada go trufa, baina baita aldatzeko itxaropena ere. Finean kritika bat da, eta hausnarke-tarako aukera eman nahi dio irakurleari.

Unibertsitateari ere kritika egiten diozu, bertako irakaslea izan arren. Zertan dabil herren unibertsitatea?